



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZIRKULARRA, 2019ko MAIATZAREN 22koa, GRADUKO ETA GRADUONDOKO IKASKETEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko EBALUAZIO PROBETAN ETA LAN AKADEMIKOETAN JOKABIDE MAKUR ETA IRUZURREZKOAK ERAGOZTEARI ETA ETIKA AKADEMIKOARI BURUZKO PROTOKOLOAREN EZAGUTZERA EMATEKO DENA

Zirkular honen bidez ezagutzera ematen da UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloa, zeinaren helburua den jarraibide esplizituak ezartzea biziak akademikoan etikaz eta zintzotasunez jokatzeko, eta, era berean, eragozte eta zigortzea batzuetan UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan egiten diren iruzur, kopia edo plagioak.

Aipatutako kasuetan aplikagarria den legeria orokorra ez da guztiz zehatza, ezta ere UPV/EHUren arautegiak, eta horrek dakar zalantzak sortzea arau horien irismen eta aplikazioaren inguruan. UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloak argi uzten ditu gai horiek.

Protokoloak, batetik, azaldu nahi die ikasleei zeintzuk diren, indarrean dauden arauen arabera, ebaluazio prozedurak arautzen dituzten printzipio eta irizpideen eskakizun zehatzak, bai eta horiek ez betetzeak zeintzuk ondorio ekar ditzakeen ere, ikasleak kontzientziatu eta irregulartasunik egin ez dezaten. Bestetik, iruzurra edo hori eragin dezaketen jokabideak eragozteko hartu beharreko neurrien berri eman nahi die irakasleei, ebaluazio probak egin eta zaindu edo proba horiek eta lan akademikoak zuzentzeko ardura dutenei hain zuzen ere.

Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak, UPV/EHUko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiak emandako eskumenen babesean (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia), protokoloaren proposamena aurkeztu zien Graduko Batzordeari eta Graduondoko Batzordeari, eta batzorde biak protokoloaren alde agertu ziren 2019ko maiatzaren 16 eta 17ko bileretan, hurrenez hurren.

Leioa, 2019ko maiatzaren 22a

Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordea
Araceli Garin Martín